

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2016ko MARTXOAREN 3an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko martxoaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta


Bere ezin etorria azaltzen du: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2016ko otsailaren 11an egindako ohiko bilkura./Sesión ordinaria de fecha 11 de febrero de 2016.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2016 ekitaldirako trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko udal zergaren errolda onartzea, hala bada/ Aprobación del padrón de vehículos de tracción mecánica correspondiente al ejercicio 2016.**
- 4. Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Belako publizitatea eta komunikazioak.**
- 5. Tolosaldea Garatzen-i 2016 urteari dagokion ekarpena onestea, hala bada./ Aportación económica a Tolosaldea Garatzen, correspondiente al ejercicio 2016..**
- 6. Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2015 urteari dagokion memoriaren onespena, hala bada./Aprobación de la memoria presentada por Tolosaldeko Ataria, correspondiente al ejercicio 2015.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Beobideburu etxea banatzeko eta eraberritzeko baimena eskaera, A.U. eta A.I./Solicitud de licencia de segregación y rehabilitación del caserío Beobideburu.
8. 2016 urterako Udal zergen hobari eskaeren onespena, hala bada. /Aprobación de las bonificaciones en los impuestos municipales correspondientes al ejercicio 2016.
9. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
10. Beste batzuk/Otros.
11. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
11.1. Adierazpen instituzionala: Martxoaren 8^a Emakumeen Nazioarteko eguna./ Declaración institucional: 8 de marzo Día internacional de las Mujeres.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ☐ 2016 urteko otsailaren 11ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Idazkari-kontuhartzaile andreak batzarkideei jakitera ematen die aurreko Udalbatzatik oraingora ez direla Alkate ebazpenik eman.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA


2016 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADA

Alkate jaunak 2016 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Erroldaren berri ematen du, kuota gordina 19.940,29 eurotako delarik.

Bertaratuek, aipatutako errolda fiskala aztertuturik, ahobatez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2016 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendaurrean ipini,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onaturiko 2016 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2016ko apirilaren 1etik ekainaren 1era bitartekoa izatea.

LAUGARREN PUNTUA

BELAKO PUBLIZITATEA ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2016 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariaren harpidetzarekin jarraitzeko eskaera kontutan hartzea, eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Larraulgo Udalak, 2016 urtean Txantxangorri aldizkariaren bi harpidetza egitea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN-i 2016 URTEARI DAGOKION EKARPENA ONESTEIA, HALA BADA


Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2015ko abenduak 17ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2016 urterako Tolosaldea Garatzen-i egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 3.199,00 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen dela, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen-i, 2016urteko ekarpena onestea, guztia, 3.199,00 euro direlarik. Lehen ekarpena burutzea onesten da, hau da, 1.599,50 eurotako diru kopurua.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: 3.199,00 eurotako gastua onestea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIAK AURKEZTURIKO 2015 URTEARI DAGOKION MEMORIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2015eko ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua, Talde honek eta Larraulgo Udalaren artean sinatutako Lankidetzaz Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2015 ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-ri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

BEOBIDEBURU ETXEA BANATZEKO ETA ERABERRITZEKO BAIMENA ESKAERA, A.U. ETA A.I.


Ikusirik A.U. eta A.I. jaun/andreak eginiko eskaera, non Beobideburu Etxea banatzeko eta eraberritzeko baimena eskaera egiten duten. Horretarako Eneko Iturbe Rekondo, Arkitekto teknikoak eginiko egitasmoa aurkezten dute, Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialean 2016ko otsailaren 18an bisatua izan dena.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoak, 2016ko martxoaren 1ean eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO BEOBIDEBURU BASERRIAN BANATZE ETA ERABERRITZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

A.U. eta A.I. jaun-andereek, Larraulgo Beobideburu etxea banatzeko eta eraberritzeko baimena eskatzen dute, Eneko Iturbe arkitekto teknikoak sinatutako proiektu bisatua aurkezten dutelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako proiektuan Beobideburu baserrian etxebizitza berri bat egokitzeko egin behar diren lanak azaltzen dira. Bertan, lana deskribatzen duen memoria, aurrekontua eta planoak, hondakinen kudeaketaren azterketa, oinarrizko segurtasun eta osasun azterlana, kalitate kontrolaren programa eta baldintza teknikoak agiriak azaltzen dira. Lanen betearazpen materialaren aurrekontua, eraikuntza eta eraispenez hondakinen ekoizpen eta kudeaketa barne **59.532,57** €-koa da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Proposatzen den moldaketa berriarekin, gaur egungo etxebizitzaren azalera erabilgarri berria 246,9m² geratzen da. Geratzen den distribuzioa, sarrera, eskailera, sukaldea, egongela, 2 komun, 2 logela eta trasteleku-biltegi batez osatua egongo da.

Egokitu nahi den etxebizitza berriak berriz, 2 komun, sukaldea, jangela-egongela, 2 logela eta portxe bat izango ditu, bere azalera erabilgarria 185,16m²-koa izanik. Etxebizitza berri honen argitasun eta aireztapenari buruzko bizigarritasun baldintzak hobetzeko hegoalderantz dagoen harrizko eranskinari pareta kendu egingo zaio, portxe moduan geratzeko. Eraikinak bere azalera eta bolumenak mantentzen ditu.

Hiri antolaketako 14 artikulua arabera, eraikinen antolaketa aldatzen duten obrek eta eraikinen lehen erabilerek, hirigintza lizentzia behar dute. Beobideburu baserria Larraulgo lur ez-hiritargarran kokaturik dago, bereziki D.20 produkzio zonaldean. Eraikina ez dago katalogatua.

Sortzen diren etxebizitzaren barne-espazio berriek Larraulgo araudiak ezarritako bizigarritasun baldintzak bete behar dituzte.

Artículo 53.- Condiciones de habitabilidad.

-. En las edificaciones autorizadas en Suelo No Urbanizable serán de aplicación, en su caso, las condiciones de habitabilidad referentes a dimensiones mínimas de las piezas, ventilación e iluminación establecidas para espacios similares en las ordenanzas correspondientes al Suelo Urbano.

Bi etxebizitzek araudian azaltzen diren konposizioa eta programa, espazioen gutxieneko azalera eta bizitzeko gelen argiztatze eta aireztapenen baldintzekin bat egiten dute.

Gaur egun Larraulen dauden baserrien eraberritzeak arau subsidiarioen 66º artikulua bete behar dute.

Artículo 66.- Reforma y rehabilitación de los caseríos existentes.

La reforma y rehabilitación de caseríos será la opción utilizada preferentemente en todos aquellos casos en los que haya una construcción rural ya existente.

1.- *Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.*


2.- *Obras que afecten a los elementos exteriores.*

Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fachada, etc.

Se mantendrán todos los elementos arquitectónicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. de especial valor que el edificio pueda tener.

Los materiales exteriores respetarán en todos los casos lo que dispone el art.49 de las presentes ordenanzas pudiendo sustituir los elementos exteriores como carpintería, cubierta, etc. pero manteniendo en todos los casos el aspecto general y los elementos singulares del caserío primitivo.

3.- *La rehabilitación integral del caserío conllevará la desaparición de txabolas, anejos y tejabanas de forma que mejoren tanto la funcionalidad del edificio en relación con la explotación agraria como su aspecto exterior.*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

4.-Número máximo de viviendas.

El número máximo de viviendas que podrá albergar el caserío rehabilitado será de cuatro, y una vez construidas se deberán inscribir en el Registro de la Propiedad como vinculadas a la correspondiente explotación agrícola e inseparable de la misma, ajustándose a los siguientes criterios:

- Número máximo de viviendas permitidas: 4
- Superficie construida mínima por cada vivienda: 150 m² (s)

No se computarán a estos efectos otras viviendas existentes en el mismo edificio no adscritas registralmente a la explotación.

5.-Ampliaciones singulares del caserío primitivo.

Se podrán realizar obras de ampliación del caserío siempre y cuando los mismos queden adosados a él y no desdigan de la composición del edificio primitivo. La ocupación en planta de la ampliación más la superficie existente no podrá ser superior a 300 m²(s).

Proiektuan ,denetara, 2 etxebizitza aurreikusten dira. Etxebizitza hauek Jabegoaren erroldan inskribatuko dira nekazaritzako ustiapenari lotutako eraikin gisa, eta honetatik BANAEZINAK izango dira, lursailaren gutxieneko azalera 20.000m² izanik. Gaur egun, Beobideburu baserriari loturiko lursailen azalera 70.000m² ra iristen da.

Beraz, aurrekoa betetzen bada, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait. Dena den, lanak hasi aurretik, instalazio orokorren kokapeneko plano bat ekarri beharko da udaletxera. Kasua balitz, udal saneamenduarekin konexioa arketa edo kutxatila batez izango da.

*Ekainaren 26ko 112/2010 eraikuntza eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dekretuaren 5º artikulua araberako, hirigintza-lizentziak emateko baldintza gisa, obra handietan sortutako eraikuntza eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatuko direla bermatzeko fidantza bat eratzea aginduko dute udalek. Kasu honetan **fidantza 300,00€** koa izango da.


*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

* **Etxebizitzaren lehen erabilerarako** eskrituraren borradorea, eta instalazioen buletinak ekarri beharko dira udaletxera, lanen azken ziurtagiria, likidazioa, argazkiak eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriekin batera."

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.U. eta A.I. jaun/andreak eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo Beobideburu baserria banatzeko baimena ematea, Eneko Iturbe arkitekto teknikoak sinatutako proiektuaren arabera, eta betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: A.U. eta A.I. jaun/andreak eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo Beobideburu baserria eraberritzeko obra baimena ematea, Eneko Iturbe arkitekto teknikoak sinatutako proiektuaren arabera, eta betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri A.U. eta A.I. jaun/andreak ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2016 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2016 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2016ko otsailaren 1etik 29 arte epea ireki zela, 8 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENA: Ondoren zerrendatzen diren 2016 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

- O.O.R.: IBI -famili ugaria.
- M.S.G.: IBI -famili ugaria.
- O.U.A.: IBI -famili ugaria.
- A.A.J. IBI –Eguzki plakak.
- I.O.D.: IBI –Eguzki plakak.
- L.M.T: IBI –Eguzki plakak.
- K.J.S...: Ibilgailu historikoak.

BIGARRENA: Ondoren zerrendatzen den ibilgailuaren udal zergen hobaria ez onartzea, hobaria aplikatzeko dauden baldintzak ez betetzeagatik:


-J.U.: C-4645BD

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ICETEC	163,35
MANPEL	71,52
IMAZ COLOR	57,46
M.URANGA	145,68
EUGENIO LOIDI	221,55
LIDOINSA	871,20
AITZOL	48,72
AITZOL	48,72
TOLOMENDI	152,50
KEY-LAN	75,99
FERRETERIA BARBE	114,55
IBERDROLA	225,34
IBERDROLA	78,30
IBERDROLA	278,47
IBERDROLA	32,56
IBERDROLA	279,49
MOVISTAR	133,47
MOVISTAR	51,89
MOVISTAR	17,81

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **3.068,57** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMARGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**


Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

11.1. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: MARTXOAREN 8^a EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Ondoren EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak aurkezturiko adierazpen instituzionala aztertzen da, non ondorengoa dioen:

“Udalerrri eta Eskualdeetako Gobernuek bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alde, Europan eta Munduan




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrak adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarrizko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuak herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europan eta mundu osoan sustatzeko.

Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, 2016ko martxoaren 8an, tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkariak helburu hauen inguruan elkartu dira:

- *Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan – tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan;*
- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizarteen oinarrizko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da;*
- *Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez;*
- *Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkretuak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki¹ honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.*
- *Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma*



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak;

- *Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatuetakoko gobernuari eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionalari;*
- *Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozteak;*
- *Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.*

Gaia aztertu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarrekin aurkezturiko Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala bere osotasunean onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA